



## Herrigunea

Bere txikian interes handiko eraikuntzak gordetzen ditu Aiako kaleak. 1597an izan zen sute baten ondorioz, XVIII. mendekoak dira etxe zaharrenak.

- 1 San Esteban Parrokia (XV-XVII) Euskal gotikoa. ☞ Sabaiko gurutzeria dotorea.
- 2 Aizpeako Amaren ermita (XV) ☞ Ama Birjinaren egurrezko taila eta koruko zutabeak.
- 3 Galtzara
- 4 Etxetxo Barroko garaiko otoiztegia. ☞ Harearizko 3 gurutze, Jesusen Pasioko irudi landuekin erdikoa.
- 5 Serorategi (1734)
- 6 Erreroenea (1774)
- 7 Gilisastienea (XVIII)
- 8 Ostatu Berri (1735)
- 9 Garagorrienea (1735)
- 10 Dema Plaza
- 11 Beltraenea Udaletxea (1563-1852)

## El casco

El casco de Aia es pequeño pero conserva edificios de gran interés. Debido a un incendio en 1597 las casas más antiguas del casco son del siglo XVIII.



- 1 Iglesia parroquial de San Esteban (XV-XVII) Gótico vasco. ☞ Las bóvedas de crucería.
- 2 N<sup>a</sup> S<sup>a</sup> de Aizpea (XV) ☞ Las columnas de madera que sostiene el coro y la imagen de la Virgen.
- 3 Calzada
- 4 Humilladero Barroco. ☞ Tres cruces de arenisca, la del centro representando los símbolos de la Pasión de Jesús.
- 5 Casa de la serora (1734)
- 6 Casa del herrero (1774)
- 7 Casa Gilisasti (XVIII)
- 8 Casa Ostatu Berri (1735)
- 9 Casa Garagorri (1735)
- 10 Plaza de arrastre de piedra
- 11 Beltraenea Ayuntamiento (1563-1852)



Egileak: ARRETA AIA O.E. eta BASALURRA • Argazkiak: Aiako udaleko eta Pagoeta Parkeko artxiboak.



# aia



**Kontaktuak**  
 Udaletxea: 943 13 11 44  
 Kulturetxea: 943 13 09 24  
 Iturraran Parketxea: 943 83 53 89  
 www.aiako.com  
 www.iturraran.org



## Aia

Aia Gipuzkoako herri haundienetakoa dugu lurrez. Pagoeta mendiaren magalean dagoen herriguneak eta mendi eta haranetan barrena itsasora arte zabaltzen diren 11 auzoek osatzen dute udalerria, guztira 1700 biztanlerekin. Lur hauetan historia aurretik gizakia bizi zenaren berri ematen digute Altxerriko haitzuloetako aztarnak edota Arreta, Olarteta edo Saberriko Haitzetako tumuluek. Baina 1025. urtekoa da Aiari buruzko lehen aipamen idatzia. 1563an alkatetza lortu zuen herriak eta urtebetera, eratu zen gaurko udalerria. Kultura ondare aberatsa gordetzen du Aiak: eliza ugari, ermita, etxetxo, dorretxe, baserri, burniola, errota, karobi, elurzulo, e.a.-ek garai bateko bizi ohituren berri ematen digute eta natura ingurunearen garrantzia erakusten.



## Aia

*Aia es uno de los pueblos más extensos de Gipuzkoa abarcando tanto zonas de montaña como de costa. Sus 1.700 habitantes están repartidos entre el casco que se encuentra situado en las faldas del monte Pagoeta y en sus 11 barrios diseminados por otros tantos montes y valles.*

*De los primeros moradores de estas tierras nos hablan diversos vestigios prehistóricos como la cueva de Altxerri o los túmulos de Arreta, Olarteta o Saberriko Haitzak, habiendo que esperar hasta 1025 para encontrar el primer dato escrito. En 1563 consigue alcalde propio y al año siguiente queda constituido el municipio actual. Aia posee un interesante patrimonio cultural, iglesias, ermitas, humilladeros, casas torre, caseríos, ferrerías, molinos, caleros, neveros... Todo ello nos habla de un tiempo pasado, de otras formas de vida y de otras formas de entender la naturaleza.*

## Auzoak

**Laurgain Aiatik Zarautza doan errepidean (GI-2631).** ☞ Laurgaingo Jauntxoaren Dorretxea (XIV-XVIII), San Migel Parrokia (XVI-XVII), Etxetxea (barrokoa), San Paulo ermita (Orío ondoan), Bizkar (XVIII) eta Iturraran (XVII) (Pagoeta Parkeko Informazio Zentrua) bezalako baserriak, Agorregiko burniola (XV-XVIII)...

**Andatza Oriorako errepidean (GI-3710).** ☞ San Pedro ermita (XVII), Aristerrazu (XVII) bezalako baserri interesgarriak eta hainbat burniola eta errota zaharren arrasto ugari.

**Santio Erreka Oriotik 1,5 km-ra (GI-3710).** ☞ Santiago ermita (XVI). XVIII. mendeko burniola garrantzitsu baten aztarnak: Arrazubikoa.

**Iruretaegia Asteasurako norabidean (GI-2631).** ☞ Joan Bataiatzailearen ermita, iturburu baten gainean eraikia (XVI) eta Iturriozko Benta (XVII). Erriorako igoeraren abiapuntua.

**Urdaneta Zarautzik du igoera (GI-3162).** ☞ San Martin eliza (XVII), Aranburu Zar (XVII) bezalako baserri interesgarriak. Bertatik ikusten diren bista ederrek leku berezi egiten dute.

**Alzola Urdanetako bideari jarraituta (GI-3162).** ☞ San Roman eliza (XVI), Monjaetxea, hilerri hexagonal, galtzen doazen baserri zaharrak..., paraje bakarti eta baketsuan.

**Elkano Zarautzik Meagara doan errepidetik (GI-2633).** **Aia, Zarautz eta Getariako lurrak ditu.** ☞ San Pedro eliza (XVI) eta Santa Kruz ermita (hiru herrien arteko muga dago barruan).

## Los barrios

**Laurgain Situado en la carretera de Zarautz (GI-2631).** ☞ La casa torre de los Laurgain (XIV-XVIII), la iglesia de San Miguel (XVI-XVII), los caseríos como Bizkar (XVIII) o Iturraran (XVII) (Centro de Información del Parque de Pagoeta), la ferrería de Agorregi (XV-XVIII), el humilladero barroco, o la pequeña ermita de San Pablo (junto a Orío).

**Andatza Carretera de Orío (GI-3710).** ☞ Ermita de San Pedro (XVII) e interesantes caseríos como el de Aristerrazu. Numerosos restos de antiguos molinos y ferrerías.

**Santio erreka A 1'5 km de Orío (GI-3710).** ☞ Ermita de Santiago (XVI) y los restos de una de las más famosas ferrerías del siglo XVIII, la de Arrazubi.

**Iruretaegia Carretera de Asteasu (GI-2631).** ☞ Ermita de San Juan (XVI) construida sobre el nacedero de una fuente y la Venta de Iturriotz (XVII), punto de partida de la subida al Ernio.

**Urdaneta Se accede por Zarautz (GI-3162).** ☞ Iglesia de San Martin (XVII), caseríos como Aranburu Zar y sus espectaculares vistas hacen de él un lugar muy especial.

**Alzola Carretera de Urdaneta (GI-3162).** ☞ La iglesia de San Román (XVI), el edificio Monjaetxe, su cementerio hexagonal y sus caseríos esparcidos conforman este apartado lugar.

**Elkano Carretera de Zarautz a Meaga (GI-2633).** **Está repartido entre Aia, Zarautz y Getaria.** ☞ La iglesia de San Pedro (XVI) y la ermita de Santa Cruz donde se encuentra la divisoria de las tres poblaciones mencionadas.

## Pagoetako Parkea

Gipuzkoako kostaldeko mendi katean aurkitzen da, Aiako udalerriari, Orío eta Zarautzik kilometro gutxira. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutan dago. 1998an Parke Natural izendatua, 2.860 ha-ko hedadura du eta Zarautz eta Zestoara zabaltzen da.

**Iturraran Parketxea**, (Aia-Zarautz errepidean), bertako **Informazio Zentrua eta Museoa** da, bisitariari atek zabalik dituen harrera egin eta inguruaren berri emateko.

**Iturrarango Lorategi Botanikoa** (mundu guztiko landare bilduma zabala), **Erlategi Didaktikoa** (erlearen bizitza gertutik ezagutzeko), **Agorregiko burniola eta errota** (XVIII. mendean eraikitako instalazio hidrauliko berezia), ibilaldi gidatuak egiteko aukera... eskeintzen dira besteak beste hemen.

Parkeak dituen ondare balioak ugariak dira eta interes handikoak natura eta paisaia nahiz historia, arkeologia eta etnografia aldetik. Gonbidapena luzatzen diogu, Parkeko instalazioak bisitatzera, mendi bideetan barrena paseatzera, paisaia mirestera edota atsedean lekuetan aisia hartzera hurbildu nahi duenari.

## El Parque de Pagoeta

*Se encuentra en la cadena montañosa de la costa guipuzcoana, en el municipio de Aia a pocos km. de Orío y Zarautz.*

*Perteneciente a la Diputación Foral de Gipuzkoa fue declarado Parque Natural en 1998. Con una extensión de 2.860 ha., se extiende por terrenos de Zarautz y Zestoa.*

*El Caserío Iturrarán, (carretera Aia-Zarautz) funciona como Centro de Información y Museo del Parque, abriendo sus puertas al público para atender y dar información al visitante.*

*El Jardín Botánico de Iturrarán (extensa colección de plantas de todo el mundo), el Colmenar Didáctico (para conocer de cerca la vida de las abejas), el Complejo Ferro-molinero de Agorregi (instalación hidráulica del S.XVIII), o la posibilidad de realizar paseos guiados... son algunas de las posibilidades que se ofrecen aquí. El Parque cuenta con un patrimonio naturalístico, paisajístico, histórico, arqueológico y etnográfico muy valioso. Invitamos pasear por sus senderos, a admirar el paisaje o a disfrutar de un rato de ocio en las zonas de pic-nic.*